

Beitaren misterioak aurkezten dituen erakusketa, Biarritzeko Itsas Museoan

Duela 30 urte horrela arrantzatzen zen, baina orain jakituria hori ez da transmititu. Jakituria hori gal ez dadin erakusketa bat egin dugu, azaldu zuen egitasmoaren sustatzaile eta ikusgai dauden koadroetako egilea den Michel Hacialak.

Erakusketaren xede informatiboa ere nabarmendu zuen Jacques Pavlovsky argazkilariak: Nire argazkiak oso didaktikoak eta sinpleak dira. Ez dut ezer pertsonala egitea bilatu, beita nola egiten diren erakusten saiatu naiz, besterik ez. Artisten ideiak Museoaren helburuekin bat egiten zuela eta berehala seduzitu zuela nabarmendu zuen zentroko zuzendaria den Françoise Pautrizelek. Maiatzaren 26ra arte izango dira ikusgai artista eta arrantzaleen lanak.

Argazkietan Jean-Baptiste Haciala arrantzale ohia agertzen da beita egiten. Sorkuntza prozesuaren aldi ezberdinak agertzen dira. Beiten parte diren arto azalak tindatzen eta moztzen diren momentuen irudiak ere hartu ditu argazkilariak. Margolariak bere aldetik garai bateko egoerak ekarri ditu gogora bere artelanen bitartez. Iraganeko arrantzaleak itsasoan aritzen zireneko irudiak edota nekazariekin batera artoa zuritzen aritzen zireneko momentuak islatu ditu margolanetan.

Arrantzale izandako bi artistek eurek bizi izandakoaren edota entzundakoaren berri eskaintzen du margolariak. Film txiki bat ere egin du Michel Hacialak beiten ekoizpena pausoz pausoz erakutsiz. Erakusketaren ardatz nagusiak dira beita, eta errepresentazioez gain, bertan benetakoak ere jarri dituzte ikusgai. Erakustoki batean atuna arrantzatzeko Euskal Herrian baliatzen ziren amu eta amuzkiak agertzen dira. Amuzkiak egiteko erabiltzen ziren materialak ere ikus daitezke, hala nola metalezko hariak eta arto azalak. Kolore arrosaz, horiz edo grisez tindatuak, atunak erakartzeko. Arraina tronpatzeko erabiltzen ziren arto azalak, ur azpian modu berezian ikusten baita dena azaldu zuen Hacialak.

Beiten produkzioa gizonen esku gelditzen omen zen, izan ere, metalezko hariak ezartzeko indar handia behar zen egin. Arrainaren tamainaren arabera, lodiera bateko edo besteko hariak erabiltzen zirela nabarmendu zuten arrantzaleek. Arrainak itsasontzira igotzeko behar zen indarra ere azpimarratu nahi izan zuen margolariak. Bere margoetan Hacialak ontzien tamainaren berri ere ematen du, zortzi bat arrantzale biltzen zituzten tamaina txikiko ontzietan.

Bi ikuspegi ezberdin

Bi lan oso ezberdinak egin ditugu erakusketa honi osotasuna emateko. Nik informazioa pasarazi nahi izan dut, eta Michelek artearen askatasuna baliatu du, azaldu zuen Jacques Pavlovskyk. Michel Hacialaren lana ulergarri izateko helburu duen grafismoan oinarritzen bada ere, ikuspegi subjektiboa ezin uka dakiok, arrantzaren munduaren gogortasuna ikuspuntu artistiko argi batetik azalduz.

Txikitako eta nerabegaroko istorioen eta bizimoduaren erreportaje bat bezala hartzen dut nik erakusketa hau. Hasieran soilik informazio hori gordetzeko egin nahi nuen, baina gero Michel Hacialaren margoekin elkartuta erakusketa bat ere egin zitekeela konturatu ginen, azaldu zuen Jacques Pavlovskyk. Gauza sinpleenak hartzeko ere ikuspegi indartsua eskaintzen du argazkilariak bere lanetan.

Hacialarren familia arrantzalearen baitan, betidanik izan da margoarekiko erakarpena eta koadro hauetan hori antzeman daitekeela azaldu zuen artistak: Gure familian betidanik egin izan ditugu arrantzaleen margoak eta nik tradizio horrekin segitzen dut.

BIZIAREN ISLA

Txikitan eta gaztetan ezagututako arrantzale bizimoduari buruzko erreportaje bat bezala hartzen dut erakusketa hau, azaldu zuen argazkilariak.

Idoia ERASO